
LIBURUTEGI DUINARI BURUZKO DESIDERATA KOMUNITARIOA IRUÑEKO ALDE ZAHARREAN



Liburutegi Publikoa

zentzu guztietan



HITZAURREA

Iruñeko Alde Zaharrean Liburutegi Duinaren Aldeko Lan Taldeak gizarte osoari helarazi nahi dio eta aurkeztu DESIDERATA KOMUNITARIOA, Alde Zaharrerako liburutegi publikoari buruzkoa. Liburutegi publikoaren gaineko eskaera da, instituzioei helaraziko dieguna.

Zergatik deitzen da desiderata?

Liburutegietan, dakizuenez, bada formulario bat, erabiltzaileak zenbait dokumentu eskuratzeko egiten duen proposamena dena; non, beraren irudiko, izateko egokiak diren horiek azaltzen dituen. Formulario horri desiderata deitzen zaio. Nafarroako Gobernuak ezarritako Zerbitzuen Karteraren arabera, Liburutegiak iradokizun horiek aztertzeko konpromisoa hartzen du eta eskatzaileari erantzuteko, erabakia azalduz. Desideratak arrazoituak izaten dira, hau da, azaltzen da zergatik den dokumentu hori herritarren interesekoa edo liburutegirako interesgarria. Horrexengatik, gure eskaerari DESIDERATA deitzen zaio.

Zein da Liburutegi Duinaren Aldeko Lan Taldearen asmoa?

Gure taldea sortu zen San Frantsisko Plazako liburutegia itxi eta Mendebaldera eraman zutenean. Kondestablearen Jauregiko liburutegiaren egoera kaskarra dela eta, Alde Zaharreko auzokideok, baita auzoan eta auzorako lan egiten duten elkarte eta taldeok, kezkaturik gaude eta hala segitzen dugu. Horrexengatik eta proiektu berrirako, Udalak eta Gobernuak, kultura, heziketa eta zenbait arlotako beharrei dagokienez, auzokideoi galdetzen ez zigutela jabetuta; lanari ekin genion eta dokumentu bat gauzatzeari, Alde Zaharrean auzokideok behar eta nahi duguna azalduko lukeena.

Lan Talde honek garrantzia handia ematen dio liburutegi bat ezartzeri ahalik eta baldintzarik hoberenetan, zeren kulturaren gunea da, heziketa, aisia, tokiko ondare zein nortasun sozialarena; bizitza komunitarioaren bitarteko kohesio-emailea eta komunitate osoaren garapen sozial eta humanoaren funtsezko motorra.

Hauek horrela, gure asmoa da Alde Zaharreko liburutegi berriak, La Agricola eraikuntzarako diseinatu dutena, Alde Zaharreko eta Iruñeko komunitateak dituen ezaugarri eta beharretara egoki dadila; eta, gainera, gogoko genuke, hiriburuko zentro historikoan kokatua dagoelako, mimo handiz trataturik izatea.

Proiektu ofizialari zein udal gestioari buruzko zenbait gogoeta

"Hiriko Liburutegi Zentral" gisa udal gobernuak diseinatu duen proiektu ofiziala gogotik aztertu dugu eta uste dugu badituela zenbait kontu ez argi. Helarazi nahi diogu Udalari honako galdera: Zeri deitzen diote Hiriko Liburutegi Zentrala?

Esanguratsua da, adibidez, proiektu ofizialak funtsa biltegian kokatzea; nolatan eta egungo liburutegiak izan behar duen funtsa bakarrik herritarron eskura egon behar duelarik, halabeharrez. Biltegian fondorik duen liburutegiak XIX. mendeko instalazio batera eramanen gintuzke.

Bestalde, liburutegi horrek gainerako liburutegien buru izan nahiko badu, duintasun horri dagokion aurrekontuak behar du izan, nazioarteko jarraibideek ederki azaltzen duten moduan, eta ez da egokitu zaion aurrekontuaren kasua, xede horretarako diru-kopuru eskasa baitu.

Azkenik, adierazi nahi dugu proiektu horren gestioa ez zaigula iruditu egokiena. Ildo horretatik, xelebrea litzateke enpresa pribatu batek hiriko liburutegi publikoen erantzukizuna izatea, eta, hortaz, Hiriko Liburutegi Zentral gisara, horiek beraren ardurapean egotea. Gainerako liburutegi publikoetako langile publikoek enpresa pribatuak agintzen dituen jarraibideak bete behar dituzte?

Desiderata komunitarioa gauzatzeko erabili dugun metodologia

Desirataren lana funtsezko lau zutabetan oinarritu da:

1) Iruñeko eta bereziki Alde Zaharreko populazioaren gaineko datuak biltzea informazio, kultura, heziketa, aisia, ezagutza eta sormenaren kontuetan; arlo horietan beraren behar eta nahietara hurbiltzeko xedez.

2) Proiektu ofizialaren azterketa: planoak eta memoriak.

3) Eskaeraren zenbait puntu zehatzetan, aditu edota jakitunei aholkurik eskatzea.

4) Liburutegi publikoari buruzko Eztabaida Taldea. Bi talde koordinatu osatu dituena: 8 Liburuzainen Taldea eta Auzokideen Taldea.

1) Aurretiko azterketa **datuen analisian** oinarritu da. Nazioarteko araudi eta dokumentzio bibliotekarioaren analisia: IFLA/UNESCOren jarraibideak (2001), UNESCOren adierazpena (1994), informazioaren gizarte eta interneterako IFLAren jarraibideak (2006). Udal eta gobernu egitasmoen azterketa: Liburutegi publikoen diseinua (1999), Plan estrategikoa 2010-2014, Irakurketa Publikoaren Mapa, Liburutegi Zerbitzuen Kartera, Liburutegiei buruzko Udal Plangintza (2000), Iruñeko Kultur Plan Estrategikoa (2011). Analisiak eta alderaketak beste liburutegiekin: memoriak, estatistikak (2008-2010) eta ezarri berri direneko liburutegiei buruzko datuak; Alde Zaharreko liburutegiko egungo bildumaren azterketa (funts orokorrarena zein tokiko gaiarena). Informazio gizarteari buruzko datuen analisia eta horri datxekion dokumentazio sanitarioarena: Nafarroan Informazio Gizartearen Behatokiaren azterketak, Interneterako Sarbide Publikoko Zentroen Nafarroako Sarea (CAPI), Iruñeko Wi-fi Guneak, Europako ebazpenak, azterketa zientifikoak. Alde Zaharrean eskaintzen diren beste kutur zerbitzuen azterketa, datu demografikoak, immigrazioarenak, auzoko zein Iruñeko euskararen gainekoak, auzoko enplegu zein langabeziari buruzko datuak, hauteskunde datuak, asoziazionismoarenak, Alde Zaharreko Komunitate Plana, Iruñeko Elkarteen Ataria, Iruñeko Alde Historikoaren gaineko Azterketa (CIES, 2000), merkataritzaren gaineko datuak eta hainbat urritasuna duten pertsonen elkarteek emaniko irisgarritasunei buruzko datuak.

Lan-Taldearen auzokideek zein liburuzainek auzoa eta bere ibilbide sozial eta kulturala aspaldin ezagutzen dutenez, horretan esperientzia luze hori izatea garrantzitsua izan da datu hauen guztien analisian.

Gauzatzearen prozesuan, **proiektu ofizialaren** aztertze arretatsuaren baitan, arkitektoen aholkuak kontuan hartu izan dira. Planoen zein memoriaren gaineko azalpen horiek, proiektu ez oso zainduaren berri ematen digutenak; ohartarazi ziguten

espazioen aurreikuspenen gabezia batzuez eta moldaketa ez egokiaz zenbait kasutan, hala nola litekeen inkongruentziaz, instalazio jakin batzuei dagokienez. Alderdi horiek xehe xehean aztertzen dira desideratan.

Eztabaida talde bietan, desiderata ahoz batez gauzatu da eta guztion adostasunarekin finkatu. Liburuzainen ekipoak jakintza eta profesionaltasuna ekarri zituen, eta auzokideek egin zituzten ekarpenak, liburutegien erabiltzaile gisa zein auzokide gisa, ezinbestekoak izan dira lana burutzeko bere osotasunean. Liburuzainak, gainera, Alde Zaharrekoak dira edo auzoarekin lotura estua dute betidanik.

Ezinbestean desirerataren puntu aunitzek mota guztietako elkarte zein profesionalen **aholkularitza** izan dute, horiek esker onezko atalean aipatuko ditugu. Hemen bakarrik komentatu nahi ditugu Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Liburutegiko liburuzainekin izaniko bilkura interesgarriak baita Unibertsitate horretako soziologoekin izanikoak ere, gure egitasmoari buruzkoak.

Esan bezala, bada, oinarrizko metodologiak honako osagaiak izan ditu: azterketa eta analisia, aholkularitza eta adostasuna. Gutxi gorabehera 3 hilabeteko lana egin ondoren, Lan Taldearen kide guztiok uste dugu DESIDERATA moduan egun aurkezten den dokumentuak eragile sozialen parte hartze nahikoa izan duela KOMUNITARIOTZAT jotzen ahal izateko, eta, hortaz, modu koherentean isla ditzakeela auzokide eta erabiltzaileen beharrak eta nahiak Alde Zaharrean; hori esanda, dokumentuan eskatzen dena ere, hau da, azterketa xehea egitea egoki deritzogu.

"Komunitatearendako liburutegia" delako kontzeptua

Gaur egun, pertsonaren kultur alderdi osoa garatzeko, liburutegiak beharko genituzke garapen horren giltzarri eremuen modukoak. Herritar askeak sortuko lituzkeen kultura eta, bai dinamika pertsonalean bai sozialean, benetako protagonistak izaten lagunduko lukeen kultura; ez kontsumitzaile hutsen kultura, irizpide eta iritzi propiorik gabekoena. Liburutegiak eta eskaintzen dituzten zerbitzuak toki horiek izan daitezke.

Testuinguru honetan auzoetan kokatuak dauden liburutegiek interesgarria den plus bat erantsia dute. Komunitatean kokatuak izanik eta bere jarduketa-eremua auzoa izanik; liburutegiak, kultura sortu eta transmititzeaz gain, interesgunea izateaz gain, auzokideen arteko erlazio eta konplizitateari bidea eman diezaioke eta horrela eratzen ahal da. Honek guztiak, kultura eta pertsonaren garapenaren beste alderdi garrantzitsu horri mesede eginen lioke: bere izaera edo dimentsio sozialari. Lehen aipatutako norbanako alderdiarekin batera (gogoeta eta irizpide propioak lantzea) kulturaren dimensio soziala dago: balioak, ikuspegiak, komunitatekideen arteko jokabide partekatuak, erantzunkizuna eta partehartzea, auzokideen arteko elkarreragina, eta, beraz, konplizitatearen eta kolektibitatearen bitartekari izatea. Ari gara, bada, herritarrendako onura duten zerbitzuak osaturiko liburutegiaz; bere bizikalitatea, zentsurik zabalenean, handitzeko baliagarriak diren zerbitzuez, zuzen nahiz zeharka.

Horrexengatik, sortu zen Lan Taldea Alde Zaharrean; uste baitugu liburutegi publikoa interes handiko zerbitzu publikoa dela bai garapen pertsonalerako bai kontzientzia komunitarioa sortzeko, eta, horrelakoa izanik, botere publikoen arreta berezia izan behar duela.

Liburutegi Elkarte eta Erakundeen Nazioarteko Federazioak (IFLA)[1] dionez, liburutegi zerbitzuek ezinbestez badakartzate erabiltzailearendako arreta-zerbitzua eta beraren parte hartzea ahalbidetzea. Lehen politikari dagokionez, liburutegiko lan prozedurek erabiltzaileen beharretan eta erosotasunean finkatuak izan behar dute. Kalitatezko zerbitzua soilik izanen da, erabiltzaileen nahi eta premietara egokitzen bada. Arreta-zerbitzuak arazo bat bideratzearren adeitsu erantzuteaz gain, gogoan izan beharko du erabiltzaileen ekarpena eta berrelikadura politika bibliotekarioaren garapen eta prozeduretan. Erabiltzailearen parte hartzeari dagokionez, IFLAk zera dio: galdetu behar zaie zein zerbitzu erabiltzen duten eta zeintzuk behar dituzten, inkesta bidez.

Liburutegiak zerbitzu publikoa izan behar du, herritarrengandik hurbila, bada, eta lortu behar du herritarren atxikimendua bertako erabakietan. Liburutegiak populazioaren gaineko informazioa eskuratu behar du, populazio horren antolaketaz, ezaugarri sozio-ekonomikoaz, bere informazio eta kultur beharrez, liburutegiari buruzko irudiaz, irakurgaien gustuez edota prestakuntzaren arloko gabeziez; bere liburutegi zerbitzuen eskaintza egokitzeko.

Agerikoa da, beraz, liburutegia komunitatearendako zerbitzua dela, aipatzea ere betegarri, komunitate jakin batendako, izen eta abizenduna; eta, ez marketing-operazio bat edo hauteskundeetako emaitzei begirako kanpaina politiko bat. Auzo erabiltzaileari ez soilik entzun, beraien behar eta nahiak ere aintzakotzat hartu beharko lirateke eta ezarri.

Hortaz, bada, dei egiten diegu gizarte osoari eta bereziki erakunde politikoei, liburutegia ohiko duten baino leku duinago eta aintzakoagotzat har dezaten. Ez zerbitzu funtzional bat gehiago gisa, edo komunitaterik gabeko produktu-hornigailu gisa. Komunitatearen baitan txertatua dagoen eta bere zerbitzurako egon behar duen liburutegi horren kontzientzia hartu beharko genuke, bere rol eraldatzailea berreskuratzen ahal duen liburutegia eta oinarrizko zerbitzua izan dadila eratzen ahal dena, komunitatearen garapen kulturala, soziala eta ekonomikoari laguntzeko.

Liburutegi publikoaren proiektu bat interesgarria da, bultzada politiko nahikoa badu, duintasunez hornitzen badute eta garrantzi egokiz gizarteratzen badute, arestion aipatu dugun eran. Horrengatik guztiarengatik protagonismoa beste erakunde batzuekin, kultura, hezkuntza, kontu sozialetako arlokoetan, partekatzen du; baita gizarte zibilarekin ere. Ildo horretatik, liburutegiaren helburutako bat izan liteke komunitatean dauden bitartekoak sustatzea elkarlana harilkatuz, oinarrizko zerbitzua izatea lortuz, baita instituzio, elkarte komunitario, erabiltzaile edota eragile sozialen arteko ardatza izatea ere. Hori dela eta, esan dezagun, desiderata gauzatzean, elkarlanerako eta lankidetzarako programak espazioen eraketa edo liburuen funtsa bezain garrantzitsuak dira, ez badira horiek baino garrantzitsuagoak. Pentsatzen dugu interes desberdinak egoki bateratzeak bere eginkizun sozialaren arrakasta emanen diola liburutegiari. Horretarako elkarrizketa eta komunikazioaren inguruko jokabideak ezinbestekotzat jotzen ditugu hala izan dadin.

Nafarroako liburutegi publikoek, eta gureak bereziki, erakundeen sostengua izan behar dute, udalarena eta gobernuarena; liburutegi publikoa eratu nahi bada giltzarri moduan garapen indibidual, lokal, sozial eta komunitarioan. Gainera, erakunde hauek eskaintzen dituzten informazio zerbitzuak, berez, liburutegiak dagokion rola izan dezan horren zati dira. Eta hala izan da aintzakotzat hartu desideratan.

---

[1] (2000): The Public Library Service. Guidelines for Development, 16-17 or.

Bultzada politiko hori egokia bada, eta liburutegiaren kudeaketa egokiak lagundua bada, uste dugu kultur erakunde hau oinarrizko zerbitzu errentagarri bat izan daitekeela herritarrentzat; komunitatearengan eragin handikoa, kultura, heziketa eta aisia kontuetan, arlo eta zentsu desberdinetan: merkataritzan, elkarte zibiletan, turismoan, hezkuntza zerbitzuetan, telekomunikabideetan, enpleguan eta abar.

Auzokide zein liburutegi horrek atenditu behar duen komunitatearen partaideak garen aldetik, gure egitekoa da gu ikusteko modukoak izaten segitzea erakundeen aitzinean eta zerbitzu publiko horren benetako hartzaileak garen aldetik, kontuan har gaitzaten saiatzea; liburutegiagatik dugun ilusioa helaraztea, gure komunitatearen barneko alde kuttuna baita.

Parte hartzaileak eta eskerrak

Lan Taldeak proiektu honetan parte hartu duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Zuen ekarpenen bidez eta askoren ilusioen bidez "GOGOKO GENUKEEN LIBURUTEGIAREKIN AMETS EGITEA LORTU DUGU".

Alde Zaharreko auzokide guztiei eskertu nahi dizkiegu auzoa hobetzearen alde jartzen duten kemena eta liburutegi duina eskatzearen alde egiten duten mezulari-lana eta kontzientziazio lana, bere parte hartzea, posta bidezko ideiak eta etengabeko alerta-mezuak helaraztea.

Bereziki eskertu nahi diegu Liburuzainen Ekipoari, bere ekarpen teknikoengatik eta bere dedikazioarengatik, ASNABIko liburuzain profesionalei eta bere liburutegiei buruzko datuak eskaini zizkiguten liburuzain guztiei.

Eskerrik asko ere dokumentuaren gauzatzean parte hartu duten auzoko hainbat talderi eta elkarteri. Urritasunen arloko elkarte zibil hauei: Nafarroako Elbarritu-Ordezkarien Batzordea (CORMIN), Nafarroako Pertsona Gorren Elkartea (ASORNA) eta Entzumen Urritasuna duten Pertsonen Familien EUNATE Elkartea, bere ekarpenengatik eta laguntzarengatik.

Musika arloko profesionalei eta musikariei gure jardueretan eta fonoteka gauzatzean laguntzeagatik. Alde Zaharreko merkatariei bere laguntzarengatik eta bereziki ondorengo liburu-dendei: Abarzuza, Auzolan, Elkar, La Hormiga Atómica eta Iratxe. Eskerrik asko euskal kultura arloko IKA eta AEK-ren kideei beraien ekarpenengatik. Eremu Elektromagnetikoengatik Kaltetuen Nafarroako Elkarteari (ASANACEM/EEKNE) bere aholku eta informazioarengatik. Prozesuan aholkurik eman diguten guztiei eskerrak: soziologo, arkitekto, liburuzain, kulturaren arloko profesional, itzultzaile, zhi (zeinu hizkuntza interprete) eta zenbait arlotako teknikariei. Mila, mila esker.

Lerro hautatik, eskerrak eman nahi dizkiegu Zaidin auzoko (Granada) auzokidei animoak eta elkartasuna azaltzeagatik. Hemendik guk ere esan nahi dizuegu: "Gu Ez itxi Zaidingo Liburutegia Plataformakoak gara" eta exijitzen dugu Las Palomas Plazako liburutegia irekitzea baita Granadan behar diren guztiak ere.

Aipamen berezia azaldu nahi diegu eta San Frantzisko Ikastetxeko irakasle zein ikasleei eskerrak eman, bere desidetara propioa egin dutenak; bere esfortzuarengatik eta sinesteagatik, eta guri ulertarazteagatik ametsak betetzen direla. Honako hau gure ametsen fruitua baita.

Pamplona-Iruñeko Alde Zaharrean Liburutegi Duinaren Aldeko Lan Taldea

BIBLIOGRAFIA ETA ERREFERENTZIAKO DOKUMENTUAK

R. Lozano Díaz, 2006; La biblioteca pública del siglo XXI: atendiendo clientes, movilizando personas. Gijón: Trea.

G. García Álvarez; 2005; Las bibliotecas municipales: Utilización y valoración de los servicios por parte de los usuarios. Ayuntamiento de Valladolid.

H. Vogt, 2005; El usuario es lo primero: La satisfacción del usuario como prioridad en la gestión. Barcelona: Fundación Bertelsmann.



IRUÑEKO ALDE ZAHARREAN LIBURUTEGI PUBLIKO DUINAREN ALDEKO DESIDERATA KOMUNITARIOA

Lokalaz eta zerbitzu eremuaz.

San Frantziskoko eraikina egokia da Alde Zaharrak behar duen liburutegi duina hartzeko. Eraikina soil-soilik liburutegi zerbitzuetarako ahalik eta hobekien aprobetxatzeko berregituratu beharko litzateke: informazio, kultur, hezkuntza edo dokumentazio zerbitzuak, betiere liburutegien esparruan, eta instalazioaren etorkizuna eta auzokideen biharko premiak gaur egun aztertuta.

Alde Zaharreko liburutegiak libreki eskuratzeko funtsez –eta soilik libreki eskuratzekoez– osatu behar da.

Horregatik uste dugu lehenbiziko solairuan erabilera publikoko zerbitzuak egon beharko liratekeela (funtsari buruzkoak), eta beheko solairura eraman beharko liratekeela kultur erabilerako zerbitzuak. Hona ideia batzuk beheko solairuaren banaketa berrirako: bertara eraman litezke lan gelak, erabilera anitzeko gelak (hitzaldi aretoa, liburu aurkezpenak...), informatika gelak (liburutegi zerbitzuetan erabiltzaileak trebatzekoak edo informatika saioak egitekoak), eta abar. Espurgoetarako, dokumentu bikoiztuak kudeatzeko eta bigarren mailako lan administratiborako aski da biltegi bakarra. Beheko solairuan libre gelditzen dena aipatu diren zerbitzuetarako egokitu beharko litzateke, liburutegi arlokoetarako alegia, eta ez udalaren ez gobernuaren beste inolako zerbitzutarako. Bi solairuen arteko lotura arkitektonikoak, berriz, irisgarritasunak trabarik gabea, arina, modernoa eta erosoa izan beharko luke: arrapalak eta igogailuak, eta egungo araudia bete, noski. Liburutegi berriaren irisgarritasunaren arloko gaiei dagokienez, uste dugu komeni dela arazoak izan ditzaketen taldeen elkarteek beraiek auditoretza-lanak egitea.



Nori eman behar zaion zerbitzua

Liburutegi zerbitzuak orokorra izan behar du, era guztietako erabiltzaileentzakoa, alegia, nongoak diren kontuan hartu gabe; Alde Zaharreko liburutegiak, gainera, auzoko biztanleentzako programa bereziak izan beharko lituzke, gure ustez, eta horixe jaso beharko luke Udalaren eta Gobernuaren arteko hitzarmenak.

Alde Zaharreko liburutegiak arreta eman die orain arte Zabalguneko bizilagunei, eta halaxe eginen du etorkizunean ere. Alabaina, auzo horretako bizilagunek, Zabalgunekoek alegia, beren liburutegia behar dute. Horregatik, oraingo lan hau bitarte baterakotzat hartzen dugu. Horren ondorioz, jakina, lagun gehiago izanen da San Frantziskon, eta hori kontuan hartzekoa litzateke, hiritar guztien premiei modu egokian erantzuteko. Horregatik, uste dugu Zabalgunean liburutegi bat izateko eskaria

epe laburrean erantzun beharrekoa dela agintarien aldetik, bi auzoetako bizilagunentzako zerbitzu honek okerrera egin ez dezan.



Liburutegiaren izena

Pablo Antoñana idazle vianarraren omenez, eta haren lana eta Iruñeko Alde Zaharrari zion estimua aintzat hartuz, **"Pablo Antoñana liburutegia"** izanen du izena.

Iruñari buruzko funtsa eta informazioa

Liburutegiaren funtzioen arteko bat, garrantzi handikoa, honako hau litzateke: Iruñaren historiari eta oro har hiriarekin zerikusia duen guztiari buruzko funtsak eskuratu, kontserbatu eta zabaltzea, nahiz bertako idazleek nahiz kanpokoek idatziak, fikziozko obrak barne. Hiriaren ondare bibliografiko eta dokumentalaren ardura izanen du bere gain.

Beste eskari bat honako hau da: Iruñari buruzko informazio zerbitzu bat (bereziki Alde Zaharrari buruzkoa) eta tokiko informazioa liburutegian bertan. Tokiko informazio zerbitzu hori tokiko erakundeekin eta auzoko entitate komunitarioekin koordinaturik eta lankidetza estuan ezar liteke.

Uste dugu Iruñari eta bertako idazleei buruzko funtsa, noizbait Mendebaldeko Liburutegira eramana, Alde Zaharreko toki berrira ekarri beharko litzatekeela.

Elkarteak eta Alde Zaharreko dendariak

Elkarteentzako zerbitzua eta funts espezializatua eskatzen dugu, kontuan harturik Alde Zaharrean elkarteen presentzia nabarmena dela. Horretarako komeni da koordinatzea Iruñeko Udaleko Elkarteen Zentroarekin, beste erakunde aipagarriekin eta auzoko elkarteekin berekin.

Era berean, eskatzen dugu zerbitzu bat, interesgune bat edo antzeko zerbait, dendari txikientzat berezia, Alde Zaharrean nabarmena baita sektore hau, eta koordinatzea Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberarekin, Alde Zahareko Merkatarien Elkartearekin (Alde Zaharra "Merkataritzagune Irekia"), beste merkataritza erakunde aipagarri batzuekin eta auzoko saltokiekin.



Bere kabuzko ikasleari edo autodidaktari laguntzeko plana

Kontuan harturik langabezian dagoen populazioaren informazio, prestakuntza eta kultur premiak, eta baita prestakuntza arauturako aukerarik ez duten langileenak ere, bere kabuzko ikasleari edo autodidaktari laguntzeko programa berariazko bat behar da, informazio zerbitzu bat baino gehixeago izan beharko litzatekeena. Programa hori Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin eta sektore horiei arreta ematen dieten gainerako instantzia ofizialekin antola liteke eta baita populazio sektore hori elkartzen den erakunde zibilekin: langabetuen kolektiboak, sindikatuak, etab.

Haurtxoak, haurrak eta gazteak



Uste dugu liburutegiak atal bereizi bat izan beharko lukeela, liburutegitik aparte, Haurtxotekaren eta Haur Liburutegiaren zerbitzuetarako. Zerbitzu osagarri bat izan beharko luke, edo programa edo interes gune bat Gurasotegi izendatuko genukeena. Izan ere, kontuan hartzekoa da familiak eta haurrak franko daudela Alde Zaharrean.

Gurasotegia zerbitzu osagarria –Ninien Liburutegiaren-Haur Liburutegiaren osagaia– guraso eta hezitzaileentzat sortutako eremu bat izanen litzateke, haurren hezkuntzaz, elikaduraz, haien arazo eta beharrez eta haien munduarekin zerikusia duen guztiaz informazioa bilatzen dutenentzat alegia.

Uste dugu liburutegiak adin-talde bakoitzarentzako programa eta zerbitzu bereiziak eskaini behar dituela: haurtxoentzat, haurrentzat eta gazteentzat, Alde Zaharreko irakastegietako liburutegiekin, elkarte komunitarioetakoekin, adin-tarte bakoitzeko elkarteetakoekin (gazte elkarteak) koordinaturik, eta arreta berezia jarri eta lankidetzan ari behar duela bazterketa arriskurako programetan.

Populazioaren bi adin tarte horietarako atal arkitektoniko berezian (haurtxo txiki eta haurrentzakoan), gure ustez, altzariak ere desberdindu behar ditu bi guneak, baina ez dituztela bereizi behar konpartimentu estankoetan; horregatik, itxiturarik gabeko eremuak eta elkartzeko esparruak izan behar dira. Partekatzeko eremua eta esparru berezia izateko aukera uztartu beharko lirateke.

Haurrentzako funtsei dagokienez, hona aztertzeko ideia bat: jolas hezigarriak eta gisakoak funts horretan sartu beharko lirateke.

Gazte liburutegia helduen atalaren zati izanen litzateke, eta bereizia altzarien diseinuagatik, atalaren eremu partekagarria eta bere eremu propioa izateko aukera uztartuz. Gure ustez, gazteei buruzko eta gazteentzako programa eta eremu hau kudeatzeko, nahitaezkoa da haien elkarteekin eta liburutegiko irakurle gazteekin lankidetzan jardutea, hala nola Alde Zaharreko ikastegien eta elkarte komunitarioekin koordinatzea; izan ere, gazteen liburutegiak bereziki lagun baitezake elkarte horiek prestatutako bazterketa arriskuari aurrea hartzeko programekin.

Funtsa

Uste dugu Alde Zaharreko liburutegi publikoaren funtsak liburutegi generalisten ohiko funtsaren antzekoa izan beharko lukeela eta Alde Zaharreko erabiltzaileen behar berariazkoak atenditzen dituena informazioa, aisia, kultura, hezkuntza, ezagutza eta sormenaren arloetan.

Desiderata honen xehetasunekin batera, beraz, hauxe eskatzen dugu: egin dadila, Liburutegi Publikoa hornitzearren, Alde Zaharreko bizilagunen premia edo nahi horien inguruko azterketa, informazio, aisia, kultura, hezkuntza, ezagutza eta sormen arloetan ongi laguntzeko.

Udalak jarritako behin-behineko zerbitzuaren funtsa hain txikia izanik, eta kontuan hartuta liburutegi-zerbitzua lehendik datorrela (eta ez dela jarri berria), eskatzen dugu **hasierako funtsa** jar dadila, behar bezalakoa, derrigorrean behar duen

aurrekontuarekin. Hasierako funts honek populazioaren premia eta desiren araberakoa izan beharko du, bai tamainari bai kalitateari dagokionez. Nazioartean eta hemen aztertutako parametroak erreferentziatzat hartuta, hauxe da gure kalkulua: Alde Zaharreko liburutegiak, abiapuntuan, 25.000 dokumentuko funtsa izan beharko luke (2,5 dokumento/pertsona = 11.483 bizilagun x 2,5 = 28.708).



Kalitatea: **funts bizia**. Puntu honi dagokionez, nabarmendu nahi dugu gure liburutegiaren funtsak zerbait bizia izan behar duela, gure behar eta nahiak asetzekoa, eta gustuz eta tentuz prestatu behar dela, horretarako gaitasuna duten langileek prestatua aipatu azterketei jarraikiz, erabiltzaileekin bat, norbanakoen eskaerak aintzat harturik baina interes orokorra zainduz. Funtsak aberatsa izan behar du, orekatua, gaurkotua, eta libre eta plurala, zentsurarako tentazio oroz gabetua.

Uste dugu Alde Zaharreko bilduman haur, gazte eta helduentzako komikien funtsa ona izan behar duela, edo komikiteka bat. Komikia, azken batean, belaunaldien arteko zubia izan daiteke irakurgaietan, eta, gainera, genero bizia da Alde Zaharrean.

Teknologiak eta telekomunikazioak

Gela irekia. Teknologien gunea helduen eremuan egonen da, eta bai altzarien diseinuak bai estetika egokiak bereizirik egon behar du.

Teknologia seguruenaren aldeko apustua egiten dugu, hau da, uste dugu hobe dela kable bidezkoa alanbre gabeko baino. Hasieratik, Europako Batzorde Iraunkorraren ebazpenaren aurreneurri-printzipioa hartzen dugu aintzat, (ik. erreferentzia dokumentala[2]), baita IFLA/UNESCOren gomendioak ere, Interneti eta hartarako arauei buruzko manifestuan adieraziak (2006ko iraila).

Apustu horrek bi oinarri ditu. Batetik, uste dugu administrazioak, osasun publikoaren arduraduna den aldetik, aukera seguruena eta zientzia arloan eztabaida gutxien pizten duen aukera hartu behar duela. Izan ere, ospe oneko zientzialari batzuek iritzi bat defendatzen dute, baina beste batzuek kontrakoa. Horregatik, eztabaida zientifikoen iturri ez den teknologiaren alde egiten dugu, teknologia seguruena baita: kable bidezkoa. Liburutegian haur eta nerabeak daudenez gero, horren aldeko apustua berresten dugu.

Bestetik, liburutegien arloko adituen esanei kasu eginez, uste dugu "liburutegiek ahaleginak egin behar dituztela erabiltzaileei Interneterako sarbidea izateko teknologia hoberena eskaintzeko" eta "erabiltzaileei Interneterako lotura lasterrak emateko".

---

[2] "Eremu elektromagnetikoen arrisku potentzialak eta ingurumenean dituzten eraginak", Batzorde Iraunkorrak Batzarraren izenean 2011ko maiatzaren 27an onartutako testua. Dokumentua frantsesez dago: http://assembly.coe.int/Mainf.asp?link=/Documents/AdoptedText/ta11/FRES1815.htm (ikusi, gainera, 12608. dokumentua, "Europako Parlamentuko Ingurumen, Nekazaritza eta Lurralde-gaietarako Batzordearen txostena", txosten-egilea: M. Huss).

Alanbre gabeko sistema, osasunean dituzkeen ondorioei buruzko eztabaida zientifikoa sortzeaz gainera, datuak eta informazio pertsonala transmititzeko teknologia gisara ez da hain segurua, eta motelagoa ere bada.

Hori guztia kontuan hartuta, liburutegiak Interneterako sarrera lasterren, seguruena eta teknologikoki modernoena eskaini behar digu. Gure ustez, alanbre bidezko teknologia da, sarea alegia, betebehar horiek guztiak betetzen dituena (nahiz eta ez baztertu Internetera sare elektrikoari loturiko teknologiaren bidez sartzeko aukera).



Horregatik guztiarengatik, eskatzen dugu EZ dadila jarri Wi-Fi sistema edo antzekoa San Frantzisko plazan eta liburutegian, eta "zona zuri" deklaratu dadila liburutegia eta haren ingurunea, hau da, Wi-Fi edo halakorik gabeko zona.

Ohartarazi behar dugu, beraz, Internetera sartzeko ohiko bideak direla egokienak: lotura-gune gehiago jartzea (errosetak), kable bidez, eraikinaren kanpoaldean (jendearen eskura, libre), eraikinean berean sarturik edo hiri-hornigarrietan. Liburutegi barrenean kable bidezko lotura-guneak jartzea, erabiltzaileek ordenagailu eramangarriarekin moldatu daitezen, bai ikasketa-gelan, bai helduenean, haurren liburutegian, gazteenean eta hemerotekan.

Gure ustez, "web 2.0 mugikorra" izeneko teknologiei loturiko beste teknologia batzuk instalatzen badira (eremu elektromagnetikoen, irrati-frekuentzien eta tentsio altuko lineen bidezkoa -eskuko telefonoak, bluetooth, "DECT" oinarri finkoko telefonoa, etab.-) liburutegian edo liburutegitik hurbil, betebehar zorrotz batzuk bete behar dira, kontrol egokiak, zuhurtziaren printzipioari jarraikiz, hau da, oro har, aldez aurretik neurriak hartu, zer gerta ere.

Gai honen inguruko adostasun zientifiko handiagoaren esperoan gaudela, baina osasunaren historian orain arte gertatutakoak oso aintzat harturik -gehienbat garapen moteleko baina ondorio larriko substantzia toxikoei dagokienez (silikosia, amiantoa, etab.)-, eta kontuan hartuta eztabaida zientifiko horretan agente kantzerigenoak eta bestelako gai kaltegarriak aipatzen direla telefonia mugikorrarekin loturik, ESKATZEN DUGU teknologia horiek jartzeko betebehar eta baldintza gutxienekoak, batez ere "web 2.0 mugikorra" izeneko teknologiei dagozkienak, hauek izan daitezela:

***a.-** Legeak ezarritako babes-atalase zorrotzenak jarri behar dira zuhurtziaren printzipioari eta osasunaren prebentzioan eta zainketan kontrastaturiko parametroen jarraikiz.*

***b.-** Eremu elektromagnetikoen eta irrati-frekuentziei buruzko behar bezalako ikerketak egin behar dira, aginduta dagoen bezala, etengabean, eta heldu den segundoan gaurkotuak. Ikerketa hauek gazte eta haurrak izanen dituzte, berezik, jomuga, gazte eta haur asko direla erabiltzaile, eskola publiko bat dagoelako ondo-ondoan, eta neska-mutiko asko joaten direla liburutegiaren ondoko parkera eta plazara. Jakina, ikerketek liburutegi publikoaren erabiltzaile oro izan behar dituzte aintzat, eta bertako langileak ere bai.*

***c.-** Administrazioak teknologia horien egile diren enpresa pribatuei eskatu behar die lagundu dezatela kontrastatzeko moduko ikerketa garden eta independenteen bidez.*

d.- *Jendaurreko informazioa izan beharra dago Iruñeko Esposizioaren Mapaz eta horrek osasunarekin dakartzan arriskuez. Informazio horrek eta teknologia horrek izan litzakeen ondorioei buruzko informazioak liburutegian egon behar du, teknologia horren erabiltzaileen eskura.*

e.- *Liburutegi publikoak informazio/formazio kanpaina iraunkorra egin behar du teknologia horietan oinarritutako liburutegi-zerbitzuen ondorioz izan litezkeen arriskuei buruz, administrazioak eta liburutegi publikoak -administrazioaren parte den heinean- duten erantzukizun sozial aginduzkoari men eginez. Informazio horrek egiari loturik egon behar du, kontrastatua izanen da, plurala baldin eta kontradikziorik badago, eta herritarrek ulertzeko modukoa.*

Teknologientzako gunean, eta kontuan hartuta zenbat bizilagun dituen gaur egun Alde Zaharrak, bai eta, proiekzio demografiko bat eginda, zenbat izanen dituen epe laburrean, eskatzen dugu jartzen den ordenagailu-kopurua nahikoa izan dadila etxean jarri ezin duen orok eskueran izan dezan ordenagailu bat, eta liburutegian lan egiten duten informazioaren arloko espezialisten aholkua behar duen orok izan dezan aholkularitzako zerbitzu hori. Uste dugu, behar horiei aurre egiteko, ordenagailu-kopuru hau beharko litzatekeela:

- Helduen gelan: 8 ordenagailu eta 2 OPAC*, hau da, 10 ordenagailu guztira. *[*Itzul: On lineko Sarbide Publikoko Katalogoa edo Online Public Access Catalog]*
- Gazteen gunean: 2 ordenagailu.
- Haurren gunean: 3 ordenagailu.
- Ikasteko gela kolektibo bakoitzeko, ordenagailu bat, hau da, guztira 2.

Eskatzen dugu informazio-sistema informatikoak adituek konfigura ditzatela, erabiltzaileen beharrak kontuan hartuta, eta erabiltzeko izan daitezela errazak eta atseginak, azkarrak, eraginkorrak eta sakonak.

Horrela, gure ustez, ordenagailu horien konfigurazioak eginkizun bikoitz baterako egon beharko luke diseinatua. Batetik, Interneten erabilera pertsonal libre baterako, erabiltzaileak egoki deritzen eta erabiltzen badakizkien tresnekin. Bestetik, ordenagailu horrek bidea eman behar du berariazko webgune tematikoetara sartzeko eta erabiltzaileak bila dezan, horrela, beharrezkoa duen informazioa. Eskaera honen oinarrizko ideia da, modu grafikoan, ordenagailu batek izan dezala ohiko Internet sarea (Google, nabigatzaileak, bilatzaileak, etab.) eta, aldi berean, esate baterako, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren enpleguaren ataria.

Eginkizun bikoitz hori betetze aldera, atari batzuk aipatuko ditugu ideia gisa; informazioaren gizartea Nafarroan, izan ere, aztertuta dago, eta azterlan horietatik ondorioztatu dira atariok, hau da, sarearen erabileraren arabera, aldez aurretik populazio-profil generikoak diseinatu dira (ik. erreferentzia dokumentala[3]). Hona atariak:

---

[3] "Bibliotecas y Nuevas Tecnologías. La primera biblioteca sin libros del mundo", *in* Mi biblioteca. La revista del mundo bibliotecario, 24 (2011), 60-65. (Iruñeko liburutegiotan dago eskuragarri: Mendebaldekoan, Txantreakoan, Yamaguchikoan, San Pedrokoan eta Sanduzelaikoan).

- Administrazio elektronikoa (webgune ofizialak kontsultatzea, formularioak jaistea, administrazio elektronikoa).
- Datu baseak, liburutegiak, dokumentazio-zentroak eta artxiboak.
- Generikoak: Internet eta posta elektronikoa; sare sozialak.
- Tokiko informazioa.
- Informazio turistikoa.
- Aisialdia, ikuskizunak eta jarduera kulturalak.
- Hemeroteka.
- Erreferentziako obrak: atlasak, hiztegiak, izendegiak, tesauroak.
- Ondasunak eta zerbitzuak.
- *On line* ikasketak, auto-ikasketa, ikastaroei eta hezkuntzari buruzko informazioa.
- Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren enpleguaren ataria
- Euskararen ataria.
- Liburutegi digital unibertsala.



Erabiltzaileen OPAC pertsonala hobetzeko, ideia gisa proposatzen dugu erabiltzaileek izan dezatela, gainera, atal bat iradokizunetarako, kontsultetarako eta erreklamazioetarako.

Liburutegiaren erabiltzaile guztiek zerbitzua baldintza beretan erabil dezaten, eta, halaber, modu justuan bana dadin ordenagailuak erabiltzeko denbora, uste dugu denbora-tarte arrazoizko bat zehaztu beharko litzatekeela ordenagailuak erabiltzeko, erabiltzaile guztiek errespetatu beharrekoa. Liburutegi publikoak, duen eginkizun demokratizatzailea kontuan hartuta, ezabatu egin behar du, ematen dituen zerbitzu guztietan ezabatu ere, arrakala elektroniko-digitala deiturikoa, hau da, informazioa eskura dezaketenen eta ezin dezaketenen artean dagoena. Beraz, ordenagailuan, erabilera mugatuko duen sistema informatikoren bat jartzen bada (mugatzailea), neurri horrekin batera, zerbitzuaren banaketa ekitatibo bat ezarri behar da. Honakoa zentzuzkoa iruditzen zaigu.

- Ordubete erabiltzaile bakoitzeko; hori litzateke oinarrizko gutxienekoa liburutegiko ordutegi osoan zehar.
- Ordu erdi erabiltzaileko bakoitzeko, erabilera puntualetarako.

- Arialdia luzatzeko aukera, baldin eta ez badago erreserbarik edo itxaronzerrendarik.

Uste dugu beharrezkoa dela informazioa grabatzeko eta eramateko aukera izatea (CDetan, USB memorietan, etab.), eta segurtasun informatikoko sistemak eta protokoloak konfiguratzea, erabiltzaile guztiak babestuko dituztenak.

Bestalde, Interneteko edukietarako sarbideak babestua egon behar du, eta, beraz, gure ustez, liburutegiko erabiltzaileek eskubidea dugu Internet bidez informazioa eskuratzeko, hori baita Giza Eskubideen Deklarazioko 19. artikuluaren filosofia. Ez dugu onartzen, beraz, inongo zentsura motarik Interneteko edukiei dagokienez.

Erabiltzaileek askatasuna dute informazioa bilatzeko, eta horrek behartzen du erabiltzaileek pribatutasunerako duten eskubidea babestea zentzu guztietan. Ordenagailuetarako izanen diren espazioak diseinatzean, erdi-kabinak diren altzariak jartzea aurreikusiko da, halako moduz non babestu eginen baita ordenagailu-postu bakoitzean ari direnen intimitatea.

Haurrentzako ordenagailuetan, filtroak jartzen ahalko dira, ziurtatzeko ordenagailu horiek erabiltzen ari diren haurrek ez direla iritsiko beren gurasoek, tutoreek, hezitzaileek eta liburutegiko arduradunek kaltegarritzat jo ditzaketen materialetara. Betiere, haurren autonomia errespetatuko da, eta haurrak jabearaziko dira Internet erabiltzen ari direla eta arduraz jokatu behar dutela. Liburutegian, berariazko programa bat egonen da haurrei informazioa emateko Interneten erabilerari buruz, eta hori haurren inguruan lan egiten dutenekin lankidetzan eginen da: ikastetxeekin, gurasoekin, haurren arretarako erakunde komunitarioekin eta arlo horretako beste instituzio batzuekin.

Informazioen teknologiei dagokienez, eta atal honetan aipatzen ari garen XXI. mendeko liburutegiaren ideiarekin bat, beste hauek ere eskatzen ditugu (osasunari buruzko goiko salbuespenak aintzat hartuta):

- Web liburutegia 2.0 zerbitzua: bloga, harpidetzak, liburutegiko sare soziala, etab. (Erreferentzia: Muskizko liburutegia: http://www.muskiz-liburutegia.org/).
- Web 2.0 mugikorra. Zerbitzu horren bidez erabiltzaileen tresna mugikorretara gai askori buruzko jakinarazpenak bidal daitezke: liburutegiko jarduerak, jardun kulturalak, museoei buruzkoak, MOPAC (katalogo 2.0 mugikorra), etab.
- Liburu elektronikoak (gailuak) izatea eta maileguan uztea, eta liburu digitalak mailegatzea.

Gure aholkua da, bai zerbitzuaren zentzu publikoagatik, bai enpresa pribatuei lizentziarik ordaindu behar ez eta horrek dakarren aurrezpenagatik, software librea edo administrazio publikoarena berarena jartzea liburutegia kudeatzeko. Hala egin dute zenbait autonomia erkidegotan; Extremaduran esate baterako.

Harresirik gabeko Liburutegia 1

60-89 urte bitarteko jendearen presentzia, emakumezkoena batez ere, nabarmena izanik, zilegi iruditzen zaigu adin honetakoei zuzendutako zerbitzu berezia.

Zerbitzua, Gizarte Zerbitzuekin koordinaturik, egokia izan litekeela uste dugu, bai mugikortasun arazoak dituztenentzat, bai adinekoentzat. Aurizberriko Liburutegi Publikoan jende guztiarentzat dutenaren antzekoa: atez ateko mailegu eta banaketa zerbitzua. Zerbitzu hau liburutegi-motor/liburutegi-ziklo formatuan eskain liteke.



"Liburutegia txirrindulan" Coyoacán (Mexico BF)

Harresirik gabeko Liburutegia 2

Liburutegiak dituen filosofia unibertsala eta zerbitzu publikokoa direla eta, gure ustez herritar guztiei ahalbidetu behar die irisbidea, bai informazio kontuetan, bai funts eta materialetan, irisgarritasunen inguruko neurri estruktural eta logistikoen inplementazioan eta baita langilerian ere. Horrela bada, neurri hauen guztien bitartez, liburutegiaren erabilpen normalizatua erraztu egin behar zaie ikusteko, entzuteko, mugitzeko, etab. desgaitasunak dituztenei.

Irisbide globala liburutegi eta informazio zerbitzuetara: Gure ustez komunikazio eta informazio aukera sentsorial guztiak izan behar lituzke, eta hala, liburutegia eta bertako zerbitzu guztiak guztiontzat ulergarri egin. Alegia, laguntzaile osagarriak, komunikaziorako lagungarri diren laguntza eta zerbitzu osagarri bereziak, hala nola, sistema handigarri eta alternatiboak, zeinu-mintzaira edo ahozko komunikazioan lagungarri diren sistemak, edota informazioa eta komunikazioa ahalbidetzen dituzten bestelako laguntza osagarriak

Esate baterako: begizta magnetikoak entzumen protesien erabiltzaileentzat, ukimen-seinalizazioa, garaiera egokiak, aulki egokituak edo egokigarriak (ortesia), ukimen edo kolore bidezko berariazko orientazio elementu lagungarriak, joan-etorriak ahalbidetzeko moduko altzari banaketa, entzumen, ikusmen, edota argi bidezko alarma sistemak, etab. Ordenagailu eta teknologia egokituak (software eta hardware) edota lagungarri teknikoetara egokigarriak, kokotsaz edo buruaz kontrola daitekeen sagua, likornioak, ikus-entzun eta uki daitezkeen teklatuak edota emuladoreak, soinu

eta argi mezuak, begi-kliskatzearen modulazioa (balizko epilepsia atakeak saihesteko), hizkiak handitzeko zoom-ak pantailatan, erakusle modulagarriak, entzumen laguntza teknikoak (FM igorleak eta begiztak), ahotsa ezagutzeko teknologia, zeinu-mintzaira software-a, pultsazio modulagarria, irteera aplikazioak zenbait formatutan (braille, audio, argi), etab.

Liburutegiko langileei dagokienez: ezgaitasunak orokorrean nola atenditu jakitea, liburuzain batek, bederen, zeinu-mintzaira era funtzionalean ezagutzea (edo bitartekari baten aukera) baita ondorengo arloetan ezagupenak izatea era: internet irisgarria, komunikazio handigarria eta alternatiboa, eta, ezgaitasun bakoitzari egokituriko agiriak argitaratzen eta eskaintzen jakitea (ukimen-txartela, multimedia aplikazioak).



Dokumentu funtsa zenbait formatutan egotea ere beharrezkotzat jotzen dugu, irisgarria izan dadin gorrentzat eta zeinu-mintzairaren erabiltzaile diren gorrentzat, entzumen protesiak dituztenentzat, braille erabiltzaileentzat, irakurterrazeko dokumentuak...

Gure ustez, oinarrizkoa eta ezinbestekoa da neurri hauek sektoreko elkarte zibilekin eta dagokien erakundeekin elkarlanean hartzea. Liburutegi berriaren irisgarritasunei dagokienez, komenigarria uste dugu erasandako elkarteek (CORMIN, ASORNA, Eunate Elkartea- entzumen ezgaitasuna, etab) egitea auditore lana.

[Nafarroan ezagaitasuna dutenen ordezkarien Batzorde Teknikoaren Bulegoak (CORMIN) eskainitako dokumentu erreferentzia: ¡Pregúntame sobre accesibilidad y ayudas técnicas! García Alonso, José Vidal ... [et al.]. Valentzia: Valentziako Biomekanika Institutua, 2005. IMSERSO, CEAPAT y ALIDESekin elkarlanean argitaratua. Autonomia Pertsonalerako eta Laguntza Teknikoetarako Estatuko Zentroa (CEAPAT-IMSERSO) Adinekoen eta Zerbitzu Sozialen Institutua (IMSERSO), Garapen Ekonomiko eta Sozialerako Itunak (ALIDES); Ezgaitasuna dutenen Ordezkarien Espainiako Batzordearekin (CERMI) elkarlanean. ASORNA, Nafarroako Gorren Elkarteak eskainitako lege erreferentziak: 27/2007 Legea, urriaren 23koa, Espainiako zeinu-mintzairak onartu eta gorrei, entzumen ezgaitasuna dutenei eta gor-itsuei ahozko komunikazioan laguntzeko baliabideak arautzen dituena (255. EAO, 2007ko urriaren de 24koa) eta 51/2003 Legea, abenduaren 2koa, aukera berdintasuna, bazterketarik eza eta ezgaitasuna dutenen irisgarritasun unibertsalaren ingurukoa]

Hizkuntzak

Gure ustez, euskararen erabilera ziurtaturik izan behar du liburutegi publikoan: bai funtsan bai liburuzainen ezagutzan, bai kultur jardueretan.


Funtsan: gure komunitateak bi hizkuntza nagusi dituela kontuan hartuta (gaztelania eta euskara), gure ustez liburutegi publikoak, hizkuntza bakoitzeko dokumentu kopuruari dagokionez, honako irizpide behar du izan: bildumaren oreka. Hori dela eta, bi hizkuntzen arteko berdintasuna helburua izanik, uste dugu liburutegiak izan beharko lituzkeela, gutxienez, Nafarroan argitaratzen diren euskarazko lanak, euskal idazleak edo itzulpen lanak izan. Horietaz gain, beste tokitan argitaratzen diren euskarazko dokumentuak ere eskuratu beharko lituzke liburutegiak.

Horrekin batera, gure irudiko, euskaraz ikasteko material nahikoa izan beharko luke baita euskara ikasteko eskaintzen diren aukerei buruzko informazioa ere. Liburutegiak, gainera, euskarari berari buruzko ikerlanak eta materialak izan beharko lituzke: bere historia, geografia, ekologia...

Bestalde, uste dugu erabiltzaileek desiderata bidez eskatzen dituzten euskarazko dokumentuak liburutegiak eskuratu beharko lituzkeela.

Ordenagailuetan paratutako funtzio edo konfigurazio bikoitzean Euskararen Ataria izan liteke horietako bat.

Langileen ezagutzan: uste dugu liburutegiko langileek euskaraz jakin behar dutela. Horretarako, EGA edo baliokidea den titulua aurkeztu beharko du edo maila aski baduen ikusteko proba bat egin.



Kultur jardueretan: gure ustez, liburutegiak diseinatzen dituen kultur programazioetan, irakurzaletasuna bultzatzekoetan edo kultura sustatzekoetan; euskarazko kultur jarduerak ere txertatu behar dira, oreka eta berdintasunaren gaineko irizpideak kontuan izanik.

Jakina, Liburutegitik hiritarrendako argitaratzen den informazio guztiak elebiduna izan beharko luke. Horretarako erabiltzen diren kartel, eskuorri eta gainerako euskarriak elebiz atera behar ditu, bada.

Alde Zaharrean ijitoen komunitatea franko handia izanik, hauen hizkuntzan, romaníz, argitaratutako dokumentuak eta bere kulturari buruzkoak beharrezkoak dira liburutegi honetan.

Populazio etorkinaren beste hizkuntzetan, Alde Zaharrean presentzia dutenetan, informazio iturriak eta fondo nahikoa izan behar dute, guk uste, nazioarteko parametroak erabiliz: Europako ekialdeko hizkuntzak, Amerikako hizkuntzak, Afrikako hizkuntzak, Magrebekoak, etab. Alde Zaharrean bizi diren Estatu mailako etorkinak ere kontuan hartu behar dira funtsari dagokionez: galego, katalan, valentziera, bable...

Nazioartean, komunikazio hizkuntza gisa erabiltzen diren ingelesa, alemana edo frantsesa, besteak beste, ikasteko nahiko materiala egon beharko luke liburutegian, baita beste zenbait materiala hizkuntza hauetan, literaturakoak direla edo beste.

Erabiltzaileen prestakuntzarako eta gaitasun teknologikorako plana



Gure ustez, beharrezkoa da, erabiltzaileen prestakuntzarako eta gaitze teknologikorako plangintza eta zerbitzua implementatzea, liburutegia eta bertako zerbitzuak (OPAC, funtsen kokapena eta ordenamendua, zerbitzuen erabilpena, liburutegiko informazio baliabideak, erabiltzaileen eskubideak, etab.) ezagutzeko, alde batetik, eta gaitasun teknologiko batzuk (internet, datu-baseak, informaziorako eta dokumentaziorako baliabide informatikoak, liburu elektronikoak, etab.)

eskuratzeko, bestetik. Programa edo zerbitzu honek, informazioan diren azken joeren berri ere eman lezake: adimen kolektiboaren kudeaketa, informazioaren eta ezagutzaren jendartea, software librea, sare sozialak eta 2.0 web mugikorra.

Plangintza honek, sotoko Formazio/Informazio Gelan izan lezake egoitza: irakaskuntzarako teknologiaz horniturik baitago gela (proiektoreak, aurkezpenak, etab.) eta helburu honetarako ordenagailu sare egokia ezartzeko aukera eskaintzen baitu.

Liburutegien arteko mailegua eta beste elkarte bibliotekario zein kulturalen lankidetza.

Uste dugu mailegu zerbitzuak zein bestelako informazio zerbitzuek osagarri izan behar dutela liburutegien arteko mailegua; horren bitartez, liburutegiak erantzun behar die erabiltzaileek egiten dituzten eskaerei, Nafarroako Liburutegi Publikoen Sistemakoak edo beste sistema, liburutegi eta dokumentazio-zentrokoak diren dokumentuei buruzkoak, dokumentu horiek eskuratzen zailak direlako, bizitokitik urrun daudelako eta abar; eta tokiko liburutegian eskaini.

Beharrezkotzat jotzen dugu liburutegiak lan egin behar duela lankidetzan eta harreman estua izan edozein liburutegi espezializatu, dokumentazio-zentro, kultur erakunde edota elkarterekin, bereziki Alde Zaharraren dauden edo bere eragin esparruan diren horiekin; komunitatearen behar kultural zein informatiboak betetzeko interesgarriak badira: IPES-en emakumezko, genero eta feminismoen Liburutegia. Gizarte gaietako Caritas-en Liburutegia, Zaldiko Maldiko, Karrikiri, Orreaga Fundazioa, Euskara Kultur Elkargoa, Zabaldiren Dokumentazio-Zentroa, Gayarre Antzokia, Civivox Kondestable, Gorosti Natur Zientzi Elkartea, Katedraleko Liburutegia eta Museoa, Nafarroako Museoa, Galeria eta Arte Aretoak (Ziudadela), eta abar.

Eremuak: solairuen banaketa, sailak eta zerbitzuak

Desiderata honetan azalduriko programa eta zerbitzu zehatzekin batera, honako eremu hauek proposatzen ditugu:

Beheko solairuan

1) **Haurtxoteka eta Haur Liburutegia** (Familiateka). Zehatz azaldua desiderata honetan. Egoki iruditzen zaigu irakurketarako 24 jarleku izatea eta 3 gehiago ordenagailuetarako: 27

2) **Ikasgela**: ederra, lasaia, erosoa, argi naturala duena eta gainerako sailetako zaratetatik isolatua. Egoki iruditzen zaigu irakurketarako 48 jarlekuko kopurua.

3) **Hemeroteka, aldizkariak.** Erosoa, atsegina eta informala, baina praktikoa ikas edo ikerketa eremu bat ere badukeena, hau da, kontsultarako mahai bat eta 4 aulki. Egoki iruditzen zaigu 20 jarlekuko kopurua, kontsulta mahaikoak barne.

4) **Ordenagailuak eta teknologiak.** Desiderata honetan zehaztasunez azaldua

- Web 2.0.Liburutegi Zerbitzua: bloga, harpidetzak, liburutegiaren sare soziala, etab. [Erreferentzia: Muskizko Liburutegia, http://www.muskiz-liburutegia.org/]
- 2.0 móvil web zerbitzua erabiltzaileen mugikorretara: Mezuak (Liburutegiko jarduerak, kulturakoak, museoak, MOPAC (2.0 mugikorrerako Katalogoa)
- Liburu elektronikoaren (euskarria) inkorporazioa eta mailegua eta liburu digitalen mailegua.

Egoki iruditzen zaigu 10 jarlekuko kopurua teknologiatan: 8 ordenagailuetan eta 2 katalogoetan.

5) ***Administrazio eremua, arreta eta informazioa*** (liburuzainak)

- Tokiko Informazio Zerbitzua. Desiderata honetan zehaztasunez azaldua.
- Alde Zaharreko asoziazionismoarendako eta merkataritzarendako Zerbitzua. Desiderata honetan zehaztasunez azaldua.

6) **Erreprografia eta digitalizazioa:** Arreta eta informaziorako administrazio eremuaren ondokoa.

7) ***Heldu eta gazteen saila***

- Helduentzako bilduma eta gunea. Egoki iruditzen zaigu irakurketarako 48 jarlekuko kopurua
- Gazteentzako bilduma eta gunea. Zehatz azaldua desiderata honetan. Egoki iruditzen zaigu irakurketarako 8 jarlekuko kopurua eta bi gehiago ordenagailuetarako, osotara 10 jarleku.

8) **Tokiko Saila: tokiko** bilduma. Ongi zaindutako saila izan behar duela uste dugu, egoki antolatua, ezagutza espezializatutik gidatura eta maitatua. Zehatz azaldua desiderata honetan

9) **Fonoteka-musikateka.** Alde Zaharreko musikaren gaineko tradizio historikoa kontuan izanda, estrategiko eta beharrezkotzat jotzen dugu sail hau. Horregatik iruditzen zaigu komenigarri ondokoekin koordinazio zerbitzua izatea, alde batetik, Joaquin Maya Udal Musika Eskolarekin, Pablo Sarasate Erdi Mailako eta Goi Mailako Kontserbatorioekin eta, bestetik, auzoan musikan aritzen diren gizarte erakunde ugariekin, besteak beste, Los Amigos del Arte Musika elkartearekin, Iruñeko Orfeoiarekin, Gayarreko Operaren Lagunen Elkartearekin, etab. etab. Grabazio bilduma handia nahi dugu, genero guztiak hartzen dituena eta bertan entzun ahal izanen dena, bakarkako entzuketarako behar bezalako tresneria erreproduzitzaileaz horniturik.

Egoki iruditzen zaigu fonotekarako 6 jarlekuko kopurua.

10) **Zineteka, dokumentalak, multimedia.** Fonotekaren ondoko saila.

11) **Atez ateko liburutegi zerbitzua zabaltzea,** bai mugikortasun arazoak dituztenei bai adinekoei (moto/ziklo-liburutegia). Zehatz azaldua desiderata honetan





Sotoan

1) **Talde-lanerako bi gela**, eta gela bakoitzeko mahai 1 eta ordenagailu 1: osotara, 2 gela eta 2 ordenagailu. Lan-talderako 16 eserleku, kopuru egokia deritzogu eta arestian esan bezala bi gehiago ordenagailuetarako, hau da, 18 eserleku osotara.

2) **Erabilera anitzeko gela** edo areto nagusi ertain bat. Bertan honakoak egin ahal izanen dira: liburuen aurkezpenak, idazleekin bilerak, pelikula ikustaldiak, entzunareto txikia, etab. 25 eserleku ingurukoa izan liteke. Bai helduek erabiltzeko, bai haurrek zein gazteek.

3) **Prestakuntza/informazio gela.** Alfabetatze informazionalerako saioak egiteko, zein erabiltzaileen prestakuntzarako erabiliko litzateke. Ordenagailu sare bat izanen luke edota hauek instalatzeko aukera. Erreprodukzio aparailuekin irakaskuntzarako. Prestakuntzarako 16 eserleku, kopuru egokia deritzogu.

4) **Biltegia eta bulego lanetarako gela:** espurgoa, artxibategia, atez ateko zerbitzuaren gestioa (moto/ziklo-liburutegia aparkalekua), etab.

Kontu tekniko arkitektonikoak: Kezkatuta gaude proiektuaren txosten teknikoan ez baitzaio inolako aipamenik egiten gauza askori: dokumentazioari, liburutegien eraikuntzari buruzko bibliografiari eta informazio-iturriei, edota liburutegi zerbitzuaren baldintzei dagozkien parametro normalizatuei: esaterako, irakurtzeko argiak (liburutegi argia), zarata, liburutegietako materialaren egoera edota agirien zaintzea. Ez zaie hauei jaramonik egiten, eraikitzean orokorrean ematen diren bestelako estandarrei baizik. Isolamendu berezia behar dela uste dugu (eta neurketa egin beharko litzateke aipatutako parametro bibliotekonomikoen baitan eta ez bestelakoen baitan); sototik beheko solairura igoko den bero handiari aurre egiteko eta, isolamendu berezia beharko dute makina guztiek, aireztatze aparatuek eta berogailuek eginen duten zarata ekiditeko. Azkeneko puntu honen inguruan arreta berezia jarri beharko litzateke, horrelako akats handi batek hankaz gora bota baitezake liburutegiaren proiektua eta bete beharreko eginkizuna, beste liburutegietan gertatu den bezala.

Bestalde, adierazi nahi dugu Haurrentzako Atala besteengandik isolatzeko jarri nahi diren itxigailu zurrunak kaltegarri izan daitezkeela, dirdirak, dardarak etab. direla-eta. Isolatzea beharrezko ikusten dugu, baina bete beharreko eginkizuna betetzeko beharrezkoak diren hornikuntza egokiak jarrita. Desirerataren garapenean aipatutako zenbait gunek, giro lasaia eta isolatua behar dute; ikasgela esaterako. Edo, isolatu beharrak direla altzarien diseinuaz baliatuta edota apaintzeko euskarri egokiak jarrita.

Irakurtzeko eserlekuen eta guneen laburpena:

Atala	*Eserlekuak*
Haurtxoteka eta Haur-Liburutegia	**27**
Ikasgela	**48**
Hemeroteka, aldizkariak	**20**
Ordenagailuak eta teknologiak	**10**
Helduentzako saila eta gunea	**48**
Gazteentzako saila eta gunea	**10**
Fonoteka-musikateka	**6**
Talde-lanerako 2 areto	**18**
Erabilera anitzeko gela edo areto nagusia	**25**
Prestakuntza/informazio gela	**16**
OSOTARA	**228**

Alde Zaharreko liburutegiaren izaera

Liburutegi publikoa zentzu guztietan: zuzeneko sarbidea duen funtsa, doako zerbitzuak, gardena eta zerbitzu publikorako bokazioa duena.

Liburutegiak langile profesionalak eta gaituak izanen ditu eta langile kopuru egokia liburutegiko eginkizunak eta lanak behar bezala betetzeko. Alegia, langileak deialdi publikoaren bidez kontratatu beharko lirateke, hortxe baitago liburutegi publikoaren izaera publikoaren oinarri nagusietako bat; eta langile horiek egiaztatutako prestakuntza eta gaitasuna izan behar dute.

Paradoxa handi samarra da, egun liburutegietako langileen profesionaltasuna defendatu behar izatea. Baina zoritxarrez behar-beharrezkoa da, administrazioek zerbitzuen esternalizaziorako joera izan baitute, eta profil profesional zehatzik gabeko langileak kontratatu baitituzte azkenaldi honetan. Bereziki, liburutegietan eta kultur zentroetan gertatu izan da, zergatik, inork ez dakielarik.

Langileen prestakuntza bigarren mailakotzat duten azpi-kontratazio hauek, honako egoera hau dakarte: enpresak kontratatutako langileek bibliotekonomian prestakuntza izanda edo ez izanda ere, haiek izan beharreko maila eta jaso beharreko soldata liburutegi bateko laguntzaile batek dituenaren parekoak edo baxuagoak dira, (D maila Nafarroako Gobernuan): beren eginkizunak eta lanak, hortaz, exijitu daitezkeen gutxienekoak dira. Liburutegirako prestakuntzarik ez duen langile batek ezin izanen ditu egin, enpresak hala eskatuta ere, liburutegien gestioaren barne diren hainbat lan:

- dokumentazio sailaren zentzuzko plangintza eta garapena: parte hartze aktiboa sailaren alde guztietan (koherentzia, tamaina, egonkortasuna, haztea, gutxitzea).
- hautaketa lanak, bai sailean aleak gehitzeko (erosketa, eta honek batean dakarren aurrekontuen plangintza eta exekuzioa, dohaintzen gaineko politika, trukeak, etab.), bai ale horiek espurgo lanaren bidez ateratzeko.
- sailaren dokumentazio prozesua: katalogatzea, sailkatzea, autoritate alta, signaturizazioa edo izenpetzea.
- sarbiderako tresnen lanketa eta liburutegiak eskaintzen duen zerbitzuaren eta agiriaren zabalkundea: web orria edota liburutegiaren promozioa gizarte-sarearen bidez, liburutegiaren inguruko berriak, bigarren mailako agiriak egitea edozein euskarritan.
- Informazio eta erreferentzia zerbitzu kualifikatuak ematea etab., etab.

Eta ezin izanen du horrelakorik egin, besterik gabe, ez baitu jakinen hori egiten. Hortaz, behar-beharrezkoa da Alde Zaharreko liburutegiak langile egonkorrak izatea, eta Nafarroako liburutegi publikoen Sarean dauden gainerakoekin alderatuta, bederen, administrazio maila bera izanen duena (C), hornidura mota honen gestio osoari aurre egiten dakiena eta ahal diona, eta kanpoko alderdien menpe egonen ez dena, hala nola, kontratazio kanpainak eta honekin batean izan daitezkeen lizitazio prozedurak, prezioan oinarrituak daudenak eta ez zerbitzuetan.

Ezaugarri hauek dituen liburutegiak etenik gabeko ordutegia izan beharko luke, 08:30etik 20:30era, larunbatak barne.

Elkarrizketarako eta adierazpen askatasunerako liburutegia.

Liburutegi batek ez du inolako zentsurarik izan behar. Gainerako egunkariekin batean Berria eta Gara ere izan behar ditu eta estu lotu beharra du UNESCOk 1994an liburutegi publikoen inguruan eta dibertsitatearen eta aniztasunaren inguruan egindako manifestuan ageri diren irizpide orokorretara. Delako manifestu honek hauxe dio:

"Liburutegi publikoaren zerbitzuak eskaintzeko orduan, oinarrizko baldintza bat da pertsona orok informazioa eskuratzeko orduan eskubide berberak izatea, adina, arraza, sexua, erlijioa, nazionalitatea, hizkuntza edo gizarte-maila edozein izanda ere.

Ez fondoak ez zerbitzuak ere ez dira ideologia, politika edo erlijioa dela eta zentsuratuko, eta ez dira presio komertzialen menpe egonen".

Gure liburutegia guztion adierazpen askatasuna babestu beharrean dago, bizikidetzaren, eztabaidaren eta ideia guztiekiko, bakar bat ere baztertu gabe, errespetuaren agora askea izan behar du.



Gestio parte-hartzailea: komunitatearen parte hartzea liburutegi publikoan, eta erabiltzaileentzako arreta.

Halaber, liburutegiaren gestioan, komunitatearen parte hartzerako mekanismo iraunkorrak eskatu nahi ditugu, azken finean zerbitzua auzokideentzat baita; hortaz, lankidetza, laguntza eta arretarako harremana, honako hauen modukoa:

Liburutegiaren Adiskideak, Liburutegiko Auzo-Kontseilua, iradokizunetarako protokolo eraginkorrak eta interaktiboak, kontsultak eta kexak, desideratak (erabiltzaileekin batean eginak), iradokizunetarako postontzia, etab. Gestioari edota Gestio Parte-hartzaileari lotutako harremana. Era berean, teknologia berriak erabilita. Horregatik, aldarrikapen batetik abiatuta Alde Zaharrean sortutako lan-taldea zeregin honetan laguntzeko prest dago, ahal dugun neurrian.

Eskatzailea: Alde Zaharreko Liburutegi Duinaren aldeko Lan-Taldea

Iruñea, 2012ko martxoaren 15a, osteguna